

Inbertsioa egin izana eta laguntza ordaindu izana justifikatzeko gida

1.-5. pizgarriak

KONTSIDERAZIO OROKORRAK

- Dokumentu hau informatiboa da soilik eta inbertsioak egin izana behar bezala justifikatzeko gida gisa da baliagarria, eta pizgarri-programen oinarri arautzaileak dira nahitaez bete beharreko dokumentua.
- Dokumentuak igotzeko prozesua behin eskatutako dokumentuak bilduta daudela hastea gomendatzen dugu.
- Eskatutako dokumentu guztiak aurkeztu behar dira, eta baliozkoak izan behar dute.
- Dokumenturen bat falta bada, edo haietakoren bat baliozkoa ez bada, dokumentazioa zuzentzeko dagokion eskaera egingo du EEEK. Kasu horretan, interesdunari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean zuzendu dezala hutsegitea.
- Formatu ez-editagarrietan igo behar dira dokumentu guztiak, hala nola PDF, JPG, eta abar. Ez dira formatu editagarriak onartzen, hala nola DOC edo XLS. Dokumentu guztiak testua pantailan horizontalean bistaratuta eta ahal bada trinkotu gabe aurkeztuko dira.
- EEEK gida honetan zerrendatu gabeko beste edozein dokumentu eskatu dezake diruz lagundutako obra behar bezala egikaritu dela egiaztatzeko.
- Behin beharrezkoak diren dokumentu guztiak egiaztatutakoan, "Eskatu emandako dirulaguntza ordaintzea" klikatu beharko da. Ez klikatu "Eskatu emandako dirulaguntzak ordaintzea" dokumentu guztiak igota izan arte.

EGIN BEHARREKO URRATSAK

1. Sartu plataforman honako link honen bidez:
<https://www.euskadi.eus/mi-carpeta/web01-sede/es/>
Klikatu "Sartu nire karpeta" eta hautatu identifikatzeko bitartekoa.
Identifikatu karpeta sartzeko.
2. Hautatu inbertsioa justifikatuko den eta dirulaguntza ordaintzea eskatuko den espedientea.
3. Espedientean sartutakoan *klikatu* "Justifikazioa" atalean.
4. Irekitako leiho berrian, *klikatu* "Aurkeztu dokumentu berria", plataformara dokumentu berri bat igotzeko. Errepikatu urrats bakoitza dokumentu bat aurkeztu nahi den bakoitzean.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUEN ZERRENDA OSOA

Honako hau da aurkeztu beharreko dokumentuen zerrenda osoa, eta pizgarrien programa GUZTIAK hartzen ditu eraginpean, zer programa espezifiko eraginpean hartzen duen adierazten duten dokumentuak izan ezik:

DOKUMENTAZIOA PROGRAMA GUZTIETARAKO:

- a. Jarduketak ongi egin direla justifikatzen duen txostena, behin betiko proiektua egin duen eskumeneko teknikari tituludunak –edo, halakorik ezean, obra-zuzendariak, edo, bidezko bada, enpresa instalatzaileak– sinatua, datatua eta emana.

Informazio horrek honako dokumentazio hau bildu beharko du gutxienez:

- i. Eguzki-panel fotovoltaikoen zenbakia, marka, modelo eta potentzia unitarioa.
 - ii. Inbertsoreen zenbakia, marka, modelo eta potentzia unitarioa.
 - iii. Biltegitratze-baterien (baldin badaude) zenbakia, marka, modelo eta edukiera unitarioa.
 - iv. Txertatutako monitorizazio-sistemaren deskribapena laguntzen oinarri arautzaileen I. eranskineko IE.A1.C atalean adierazitakoari jarraikiz. Pantailaren argazkia txertatuko da argazki-erreportajearen datuak erakutsiz. Helburu horretarako ez da baliozkotzat hartuko pertsona baten lan-ordenagailu baten pantaila erabiltzea. Baliozkoa izan liteke inbertsorearen bisualizazio-pantaila, eskatutako datuak erakusten baditu betiere.
- b. Obra-zuzendariak eta obra-egikaritzapenaren zuzendariak sinatutako obra-amaierako ziurtagiria, nahitaezkoa bada. Euskadin, 10 kW-tik gorako potentzietarako eskatzen da.
 - c. Ustiapen-baimena edo martxan jartzeko akta, nahitaezkoa danean. Euskadin, aldeztu aurretik 100kW-etik gorako potentzia duten eta GTn konektatuta dauden eta soberakinak isurtzen dituzten instalazioetarako eskatzen da.
 - d. IEZ Instalazio Elektrikoaren Ziurtagiria, mota guztietako instalazio elektrikoetarako behetentsioko Erregelamendu elektroteknikoaren arabera, enpresa instalatzaileak emana eta autonomia-erkidegoko eskumeneko organoak izapidetua.
 - e. Sorkuntza-elementuak zerbitzuan jartzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena organo eskudunaren zigiluekin.
 - f. Ustiapen-baimena edo zerbitzuan jartzeko akta lortzeko autonomia-erkidegoko eskumeneko organoari eman zaion diseinu-memoria teknikoa edo proiektuaren kopia (jarduketa motarako dagokionaren arabera) eta/edo IEZ Instalazio Elektrikoaren Ziurtagiria.
 - g. Egindako jarduketei buruzko eskaera eta/edo kontratuen zerrenda (horrelakorik bada), laguntzaren azken hartzaileak sailkatua eta sinatua. Eskaera gisa baliozkotzat hartzen da halaber onuradunak onartutako eta sinatutako eskaintza. Eskaera edo kontratu bakarra badago, ez da beharrezkoa zerrenda sailkatu hori. Kontratazio publikoa tartean izanez gero, laguntzaren xede diren jarduketak egiteko laguntzaren azken hartzaileak sinatutako kontratuen zerrenda ziurtatua eta kopia, baita kontratazio prozedura justifikatzen duen dokumentazioa ere: kontratatzailearen profilaren web helbidea, agiriak, lizitazio-iragarkiak eta kontratuen formalizazioa, kontratazio-organoren akordioak.
Honako hauek eduki beharko ditu gutxienez: eskatzailearen zenbakia, eskaintzaren zenbakia, eskaintzaren data, kontzeptua, eskaintzaren zerga-oinarria (BEZik gabe), hornitzailearen izena, eskaeraren data, eskaeraren zerga-oinarria (BEZik gabe), eta eskaeraren zenbateko totala BEZarekin.
 - h. Kostu subentzionagarriaren zenbatekoak gainditzen baditu kontratu txikirako aplikatzekoa den kontratazio publikoko araudian ezarritako zenbatekoak, eta, betiere, Dirulaguntzei buruzko Legeko 31.3 artikulua aurreikusitako kasuetako baten aurrean ez bagaude, laguntzaren azken hartzaileak egiaztatu beharko du gutxienez hiru hornitzaile eskaintzak eskatu dizkiela, agindu

horretan ezarritakoa betez, eta memoria bat ere aurkeztu beharko du, non hornitzailearen hautaketa arrazoizko moduan justifikatuko den, baldin eta eskaintza ekonomiko onuragarriena hautatu ez bada. Modu praktikoan:

- i. 15.000 eurotik beherako kostu subentzionagarri baterako, ez dago zertan hiru eskaintza aurkeztu ezein kasutan ere.
 - ii. 40.000 eurotik gorako kostu subentzionagari baterako, hiru eskaintza aurkeztu beharko dira nahitaez.
 - iii. 15.000 eurotik 40.000 eurora bitarteko kostu subentzionagarri baterako, hiru eskaintza aurkeztu beharko dira nahitaez eskaera "zerbitzuak eta hornidurak" gisa hartuta kontzeptu horrek 15.000 euroko zenbatekoa gainditzen badu, edo eskaera "obrak" gisa hartuta kontzeptu horrek 40.000 euroko zenbatekoa gainditzen badu.
Arau orokor gisa, ekipamendu guztiak hartuko dira horniduratzat, eguzki-panel fotovoltaiakoak, inbertsorea, kableak, biltegitratze-bateriak, koadro elektrikoak, egitura metalikoa, eta abar, barne. Zerbitzutzat hartuko dira ingeniari-tza, proiektuen idazkuntza, gestioak, eta abar. Obratzat hartuko da obraren materiala egikaritzeari dagokion partida.
 - iv. Ez dago zertan hiru eskaintza aurkeztu gastua laguntzaren eskaera eskatu aurretik egin bada, 4. eta 5. programetarako.
- i. Fakturen eta dagozkien bankuko ordainketa-egiaztagirien zerrenda sailkatua, eta laguntzaren azken hartzaileak sinatua, egindako inbertsio hautagarriari dagozkionak, eta aurkeztutako aurrekontu eta kontratuei erantzungo dietenak, eta dokumentu horien kopia.
Honako hauek eduki beharko ditu gutxienez: igorlearen izena, fakturaren zenbakia, fakturaren data, kontzeptua, zerga-oinarria (BEZik gabe), eta zenbateko totala BEZarekin, ordainketa-data, ordaindutako zenbatekoa (BEZarekin).
 - j. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dauzkala egiaztatzen duen dokumentazioa. Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileari baimena ematea organo emaileak (EEE) zuzenean lortu dezan Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduko 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako zirkunstantzien akreditazioa, ziurtagiri telematikoen bitartez, eta kasu horretan eskatzaileak ez du dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko. Nolanahi ere, eskatzaileak baimenari espresuki uko egiteko aukera izango du, eta kasu horretan ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.
 - k. Horrelakorik bada, pizgarri-programa honen testuinguruan eskatutako jardura edo helburu bererako kobratutako beste dirulaguntza edo laguntzak daudela akreditatzen duen erantzukizunpeko adierazpena, edozein administrazio, erakunde edo entitate publikoren laguntzak izanik ere, estatukoak edo nazioartekoak. Laguntza ematen duen ebazpenaren kopia aurkeztu beharko da.
 - l. Egindako jarduketaren argazki-erreportajearen PDFn jasotako dokumentua, jarduketaren ondorengo eraikinaren egoeraren, eta laguntzaren xede diren ekipamendu eta instalazio nagusien egoeraren argazkiak biltzen dituena, betiere jarduketaren publizitate-kartela edo seinaleztapena ere erakutsita. Gutxienez panel fotovoltaiakoen, inbertsoreen, biltegitratze-baterien, koadro elektrikoaren, datuak bistaratzeko pantailaren (bidezko bada) –zeina sorkuntzako eta kontsumoko monitorizazio-softwarearen pantaila-irudi bat izan daitekeen– eta publizitate-kartelaren argazkiak aurkeztu beharko ditu. EEEren webgunean egongo da eskuragarri publizitate-kartela deskargatu nahi bada.
 - m. Laguntzen azken hartzailearen Interneteko gunearen informazioa eta bertan sartzeko esteka, gunerik badu, eta bertan laguntzen azken hartzaile horrek jendeari informazioa emango dio Next Generation Funtsetatik edo Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik lortutako laguntza posibleaz. Dokumentuan webgunearen linka eta dagozkion logoak dauzkan

publizitatea-kartela edo emandako laguntzaren informazioa erakusten duen pantaila-irudi bat erantsi beharko da. Eskatzaileak Interneteko webgunerik ez badu, dokumentuan jaso beharko da hori. Pertsona fisikoak diren eskatzaileei ez zaie betebehar hori aplikatuko.

- n. Zerrendatutako transakzio guztietarako (diru-sarrerak eta ordainketak, kasuan-kasuan, laguntzen diru-sarrera, hornitzaileei egindako ordainketak, eta abar, barne) bereizi edo desberdindu bat dagoela justifikatzen duen dokumentazioa. Horretarako Liburu Nagusiaren kopia aurkeztu beharko da proiektu horretarako. Pertsona fisikoak diren eskatzaileei ez zaie betebehar hori aplikatuko.
- o. 1.000.000 eurotik gorako kostu hautagarria duten proiektuetarako nahitaez, justifikazio-kontua aurkeztu ahalko da auditore-txostenarekin batera, Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduko 74. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.
- p. 100 kW-ko potentzia izendatua gainditzen duten jarduketetarako, dokumentazio eguneratua aurkeztu behar da, azkenean gauzatutako jarduketarako islatuko edo berretsiko duena, osagaien jatorriari eta ezaugarriei, proiektuaren inpaktuari eta kalte esanguratsurik ez eragitearen printzipioari dagokienez. EEEren webgunean egongo da eskuragarri deskargatu nahi bada.

100 kW-ko edo hortik beherako jarduketetarako, azkenean gauzatutako jarduketak baldintza hori betetzen duela dioen erantzukizunpeko adierazpena. EEEren webgunean egongo da eskuragarri deskargatu nahi bada.

P1, P2 eta P4rako DOKUMENTAZIOA:

- q. **1., 2. eta 4 pizgarri-programetarako**, eskatzaileak amianto-instalazioak eraisteko laguntza gehigarriaren eskaera erantsi badu, aplikatzekoa den araudian ezarritako betebehar guztiak betetzen direla justifikatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko da. Amiantoarekin lan egiteko legez gaitutako enpresak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da.

P4rako DOKUMENTAZIOA:

- r. **4. pizgarri-programarako**, eskumeneko teknikari edo enpresa instalatzaile batek sinatutako txostena, non justifikatuko den instalazioari lotutako kontsumitzaileak edo kontsumitzaileek kontsumitutako energia elektrikoaren batura, urtean, laguntzaren xede den instalazioak urtean sortutako energiaren % 80 edo gehiago dela.

Kasu estandar hauetarako ez da beharrezkoa izango justifikazio-txostena justifikazio-fasean aurkeztea (baina bai, ordea, erantzukizunpeko adierazpena eskaera-fasean):

- ✓ Saretik isolatuta dauden instalazioak.
- ✓ Soberakinik gabe sareari konektatutako instalazioak
- ✓ Sareari konektatutako instalazioak, soberakinak izanik konpentsazioaren eraginpean daudenak.
- ✓ Bizitegi-sektoreko instalazio fotovoltaikoak, 2,63 kWp-ko potentzia edo potentzia txikiagoa dutenak.
- ✓ Bizitegi-sektoreko instalazio eolikoak, 3,69 kW-ko potentzia edo potentzia txikiagoa dutenak.

EEEren webgunean egongo da eskuragarri deskargatu nahi bada.

AUTOKONTSUMO KOLEKTIBORAKO EDO FAMILIA ANITZEKO ERAIKINEAN EGINDAKO PROIEKTUETARAKO DOKUMENTAZIOA:



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

- s. Adierazpenaren arabera autokontsumo kolektibokoak diren edo familia anitzeko eraikin batean egiten diren proiektuek justifikazioa aurkeztu beharko dute, parte-hartzaile guztiek sinatutako akordioa aurkeztuz, banaketa-irizpideak barne, hau da, jabeakideen erkidegoaren akordioa zein autokontsumo-erregistro administratiboan sartu izanaren justifikazioa, autokontsumo mota hori adierazita.



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

ZALANTZAK ARGITZEKO

- Telefono-zenbaki bat eta helbide elektroniko bat jarriko da onuradunen eskueran dokumentuak aurkezteko prozesuan arazorik edo zalantzarik egin izanez gero harremanetan jarri daitezten.

Telefono-zenbakia: 946.620.600

Email: gestionayudas@eve.eus